



**OÑATI**  
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

**ALKATE DEKRETUA**

Ikusirik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88.7 artikulua eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikulua ezarritakoa.

**Aurrekontuaren likidazioa onartzea**

Udal honen 2022(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

**EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2022(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2022-12-31n:		7.247.400,13
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		1.455.039,08
Aurrekontuko zordunak :	1.445.506,94	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	9.532,14	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		2.129.307,00
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	1.337.101,41	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	792.205,59	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		6.573.132,21
5.- Saldo kobragaitzak:		235.437,89
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		6.337.694,32

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	52.843,33
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-63.228,88
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	2.687.084,88
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	2.676.699,33

**KREDITU GERAKINAK**

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	3.309.295,57
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	15.366.017,59
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	18.675.313,16

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.**

Oñatin, 2023ko martxoaren 13an



ONATIKO  
ALKATEAK  
ALKATEGOA  
UDALA  
Izaro Elorza Arregi